


BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 207. alea - 2016ko maiatza



**Dena prest
XXX. Antzerki Astea
abiatzeko**



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Afarriak: 20:00 / 23:00

Bordatxo

JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak




San Roke Kalea 6, DEBA
telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazitik@gmail.com

kutxabank
hemen
eta orain **k**



www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 



URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



 No. 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
20820 DEBA Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea

estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea . 20820 DEBA
943 029 186

AZKUNE
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA
1975etik zuekin!



Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786
Mobila: 607453357
e-mail: larranaiak@gmail.com

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

sasoi

ekodenda,
dieta, dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresioak
- * Dietista
- * Podologia

Lersandi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com

207. alea - 2016ko maiatza

AURKIBIDEA

05

KOLABORAZIOAK

Eider Zulaika:
"Zakurrak",
Nagusilan Deba:
"Aitxitxaren eskuak".



08

KIROLAK

Amaiak Bat Futbol
Taldearen garaipenak,
txirrindularitza,
Kantauri Surf Liga...



10

KULTURA

Luis Mari
Agirrezabala gogoan
ospatuko da XXX.
Antzerki Astea...



12

LABURRAK

Dantzaren
Nazioarteko Eguna,
Euskal Jaia iragartze-
ko kartel lehiaketa...



14

B. GAZTEA

Liburuaren Eguna,
elkarrizketa Aloña
Salegiri, inkesta,
denbora-pasak...



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatz
euskara elkarte... deba

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbiet, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

Inprimategia: Euskalinpri


Tirada: 1.400 ale

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazita-koen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Primeran pasa genuen Kolore Anitz Egunean. Eskerrik asko guzti-guztiei!

Aurtengo Kolore Anitz Eguna apirilaren 16an ospatu genuen. Urtero bezala, egun horretan, aisialdi aukerak herriko adin tarte zabal bati eskaintzea izan da helburu nagusia. Aisialdia haurrekin lotzen dugu askotan, baina edozein adinetan goza dezakegu aisialdiaz!

Goiza herriko gazteenei zuzendu genien. Haurrei sorpresa eman nahian, eta zerbait berezia egiteko asmotan, puzgarriak jarri genituen frontoian. Horien artean zeuden aurpegia margotzeko gunea, ohe elastikoa eta mural txokoa ere.

Arratsaldea, gurekin urte askotan

udalekuetan egondako gazteekin pasa genuen, orain Gaztelekuan dabiltzanekin, hain zuzen ere. Jolasak, kalejirak, mezu ezkutuak... Giro ezin hobea sortu zen eta primeran pasa genuen!

Afal ostean, berriz, aisialdia nagusiagoi zuzendu nahi izan genien, Gaztetxean kontzertuak antolatuz. Musika entzun, dantza egin eta lagun artean jai giro polita sortu zen. Ba al da plan hobirik Kolore Anitz Eguna bukatzeko?

Eskerrak eman nahi dizkizuegu Gaztetxeari, Gaztelekuari, Gozo-Gozo erromeri taldeari, Skaleak taldeari, Udalarri, Zuhatza Euskara Elkarteari



eta, nola ez, parte hartu zenuten eta egun hau gurekin pasa zenuten guztioi ere! Egund polita izan zen eta dena zoragarri irten zen! Laster arte!

Kolore Anitz Aisialdi Taldea

Elikadura burujabetzaren hilabetea Debako Gaztetxean Burujabe ala burugabe?

Gaur egun, pribilegiatutzat kontsideratu ditzakegu barretzetik garaiko produktuak hartzen dituztenak edo larreetan libre hezitako animaliak jaten dituztenak. Izan ere, gehiengoari, elikadura industria sortu zenetik eta sistema kapitalistak honen boterea bere esku hartu zuenetik, elikaduraren burujabetza urratu ziguten; gure kontsumo eredia goitik behera aldatuz.

Herrian bertan ikus dezakegu multinazionalen gorakada azken urteotan, komertzio txikiei indarra kenduz eta hauek estugune batean jarriz. Nola jokatzen dugu egoera honen aurrean? Nahiago dugu porru sorta bat 0,89 zentimoan erostea, 4 euro ordaintzea baino. Ez dugu ikusten 4 euro horien atzean dagoen lan eta esfortzua kalitatezko produktu fresko bat ekoizteko edo 0,89 horien atzean dagoen eskubide urraketa, **ustelkeria**. Merkeenaren bila goaz eta garesti ordaintzen dugu.

Azkenaldian, komunikabideetan, oso entzuna da TTIPren akordioa. Aipatutako hau, Europar Batasun eta Estatu Batuetako goi karguen arteko akordioan datza, herritarrok ez baitugu inongo legitimitaterik honen erabakian. Hitzarmen honen bidez, merkatu librea sortu nahi dute bi lurraldeen artean. Libre hitza polita irudituko zaigu, baina letra txikiei erreparaturaz, **mugarik gabea** esan nahi duela ohartuko gara. Zer esan

nahi du mugarik gabea izateak? Zerbitzu publikoen pribatizazioa handitzea, enpresa handien interesei bakarrik erantzutea hauek diru publikoarekin subentzionatuz, kontsumitzen ditugun elikagai eta medikamentuek gaur egun pasatzen dituzten kontrolei uko egin ahal izatea, janari transgeniko eta hormona-tuen kontsumoa handitzea...

Erabaki hauek guztiak isilpean hartzen dira, ondoren hauek apaindu eta herritarroi jasaten ari garen krisiaren konponbidea izango balira bezala saltzeko. Baina filtratutako dokumentuek azaleratu diguten bezala, horren atzean ustelkeria besterik ez dago.

Ba al dakigu zer jaten dugun? Pribilegioa al da zer jaten dugun jakitea? Ba al dakigu zer diren produktu transgenikoak? Eta zein den hauen eragina gure osasunean? Ba al dugu esku hartzerik?

Hau guztia argitu eta geu geure elikaduraren jabe izateko, Debako Gazte Asanbladak Elikadura Burujabetzaren hilabetea antolatu du ekainean. Dokumentalak, tailerrak, mahai-inguruak... izango ditugu, besteak beste. Adi egon sare sozialetan zabalduko dugun programazioari!

Debako Gazte Asanblada



EIDER ZULAIKA ZAKURRAK

-Etxean:

“Eguna argitu orduko bakarrik utzi naute etxeko lau pareta hauen artean. Pare bat jostailu utzi dizkirate, ur edalontzi baten aldamenean. Baina bakarrik nago, etxe txoko guztiak miatu ditut eta ez dut inor aurkitu. Han haurrak sumatzen ditut eskolarako bidean, algara eta berriketa alaiean. Eta ni bakardade osoan etxeko zulo zikin honetan bahituta, nire nagusia noiz iritsiko zain”.

-Lanean:

“Luze doaz orduak, ni ez naiz izan bakarrik egoteko sortua. Zeharo aspertuta nago. Ai, txizalari moduko bat ere sumatzen ari naiz. Ene! Zer da hori? Zarata hori ez dut ezagutzen. Badaezpada zaunka egingo dut, jakin dezaten ez zaidala ezer oharkabean pasatzen”.

“Lanera, gaur ere bai. Bueno, behintzat, nire lau hankako alabari, gaur, paseo handi bat eman diot, giro ona zegoen eta horretarako. Ea goiz bukatzen dudak lana, nire txakurtxoaren etxean bakarrik asperasper eginda egongo da eta”.

-Bizilaguna:

“Berriz ere beheko bizilagunaren txakur txiki hori zaunkaka dabil. Gutxienez ez du zikin askorik sortzen eskaileran. Berehala edukiko nuke nik ematen duten lanarekin! Gainera, egunean gutxienez hiru aldiz atera behar da kaka eta txiza egitera... buuuf!”.

-Paseatzen:

Bi lagun zakur handi batekin paseatzen Anes Arrinda pasealekuan. Zakurra solte dago, ez baitabil jende askorik. Halako batean zakurra korrika hasten da, ero baten moduan. Inguruan

dagoen gizon baten begirada haserretua jaso du zakurrak. Akaso ez ditu zakurrak gustuko, edota akaso zaunka egiten duen edozein animalia. Baina ez du ezer esan.

Zakurrak paseatzera ateratzeko ordua iritsi da eta herriko hondartza, paseo eta alameda lau hankako animalia eta euren nagusiez beteta. Gehienak elkarrekin ondo konpontzen dira, alde batetik bestera korrika, saltoka... baina izkina batean bi zakur elkarrekin haserretu eta borrokan hasi dira beste zakur jabe batek bere zakurraren kakak jasotzen dituen bitartean.

Paseatzen dabilen bikote batek ibilbidea aldatu du haserre dauden zakur horien ingurutik ez pasatzeko, ez baitira lasai sentitzen hainbeste zakurren artean.

Goian aipaturiko egoera horiek guztiak herrian aurkitzen ditugu. Txakurrak maite dituzten pertsonak; gustatu bai, baina etxean sekula izango ez dituztenak; zakurrak gustatzen ez zaizkienak; edo zakurrei izugarritzko beldurra dietenak... Hau dela eta, herrian gustura bizi daitezen, egokia iruditzen zait nolabaiteko arau batzuk jartzea. Herrian zakurra lotuta eramatea, norbere zakurraren kakak jasotzea... Azken honekin

nahiko erreta nago, bai. Badakit gutxi batzuk direla euren zakurraren kakak jasotzen ez dituztenak, baina niri ere ez zait gustatzen zakur kaka oinetakoetan dudala etxera bueltatzea.

Iruditzen zait denok gure aldetik pixkatxo bat jartze hutsarekin, zakurrak direla eta egoten diren sestak ekidingo genituzkeela.



Aitxixaren eskuak

Aitxixa laurogei eta koska urterekin, butakan jarrita zegoen, geldi, mugimendurik gabe. Burua makurtua zeukan bere eskuei begira. Bere ondoan jarri nintzenen ez zen konturatu eta denbora pasa ahala, ondo ote zegoen galdetzen nion nire buruari. Azkenean, ez nion berari traba egin nahi, baina bai jakin ondo zegoen ala ez, eta galdetu egin nion.

Burua jaso zuen, begiratu ninduen eta irribarre egin zuen: "Ondo nago, eskerrik asko galdetzeagatik", ahots gogor eta garbiarekin esan zidan.

"Ez zaitut gogaitu nahi aitxixa; baina, jarrita zeure eskuei begira zeunden eta, ziur egon nahi nuen ondo zaudela", esan nion.

Aitxixak galdetu zidan:

"Inoiz begiratu dituzu zeure eskuak? Benetan begiratu dituzu zeure eskuak?"

Poliki-poliki nire eskuak aitxixaren eskuetatik askatu nituen, ireki nituen eta begira geratu nintzen. Irauli nituen, esku-azpiak gora eta behera. Ez dut uste inoiz horrela begiratu ditudanik eta bitartean zer esan nahi zidan pentsatzen aritu nintzen.

Aitxixak irribarre egin zuen eta historia hau kontatu zidan:



Esku hauek zimurtuak, lehorrak eta ahulak izan arren, nire tresnak izan dira harrapatzeko, lotzeko eta bizitza besarkatzeko nire bizitza osoan.

Beraiek ipini zuten janaria nire ahoan eta jantzi zuten nire gorputza. Beraiek lotu zituzten nire zapataren kordoiak eta botak ipintzen lagundu zidaten.

Zikin egon dira, trakets eta latz, handituak eta okertuak.

Nire seme-alabak jaio zirenean nire eskuak baldar agertu ziren.

Eraztun batekin dekoratuak, amodio berezi bat neukala erakutsi zuten mundu guztiaren aurrean.

Dardara egin zuten nire aita, ama

eta amama lurperatu nituenean.

Nire aurpegia estali dute, ilea orraztu eta nire gorputza garbitu.

Eranskorrak eta bustiak, okertuak eta apurtuak, lehorrak eta moztuak egon dira.

Eta gaur oraindik, esku hauek jaikitzen eta jartzen laguntzen didate.

*Esku hauek non izan naizen, tokia-
ren, lanaren eta nire bizitzaren marka dira.*

Hortik aurrera ezin ditut inoiz lehen bezala nire eskuak begiratu. Nire eskuak erabili behar ditudanean beti nire aitxixarekin gogoratzen naiz.

Zer egiten ari naiz nire eskuekin? Besarkada emateko eta maitea esateko erabiltzen ditut ala errefusa eta amorrua adierazteko?

Begira zeure eskuak eta eraman... Eguneko Zentroko amama eta aitxixentzat.

Aitxixa eta amamekin abestu eta dantza egin, eskerrak emango dizkizue eta esperientzia oso polita biziko duzu

On egiten dugunean, ondo sentitzen gara.

Nagusilan Deba

ARGAZKI ZAHARRA

Txokoko Beteranoen Txapelketa, 1979



1979an jokaturako Txokoko Beteranoen Txapelketako argazkia duzue honakoa. Bertan ageri diren pilotariak hauek dira, ezkerretik eskuinera eta goitik behera: Jose Luis Lizaso, Emilio Bastida, Carlos Zubikarai, Jesus Alba, (identifikatu gabea), Manolo Arrizabalaga, Julian Oiartzabal, Arrizabalaga, J. Carlos Carsi, Jose Luis Zabala, Jesus Mari Azkoitia, Arriaga, Elias Olalde, Manu Ibarluzea. Irudian dauden haurrak txapelketako pilotarien semeak dira.

-Juanma Oiartzabalen eskutik-

Jone Gomez, Irati Martin eta Elene Molina, Urbateko kirolariak

“Waterpolo zure bizitzako parte bihurtzen da”

Mendata institutuan ikasten dute Jone Gomezek, Irati Martinek eta Elene Molinak. Hamalau urte betetze bidean, lehenengo biak DBHko bigarren mailan dabilta eta Elene urtebete gazteagoa da. Urbat Waterpolo taldeko kirolariak dira eta Euskal Selekzioarekin aritu dira hirurak Valladoliden martxoan jokaturako Espainiako infantil mailako txapelketan. Horra hor hirukotearekin Berriketari aritzeko aitzakia polita.



Valladoliden izan zarete Euskal Selekzioarekin. Zer moduz? Gustura? Oso ondo! Primeran pasa dugu eta oso gustura egon gara.

Valentzia, Madril, Galizia, Nafarroa eta Aragoiren aurka jokatu zenuten, ezta? Zer nolako emaitzak lortu zenituzten?

Bai. Valentziaren aurka oso berdinduta egon ginen hasieran, baina azkenean galdu egin genuen. Madrilen eta Aragoiren aurka ere galdu egin genuen. Galizia eta Nafarroaren aurka, berriz, irabazi.

Euskal Selekzioarekin jokatzeko duzuen lehenbiziko aldia izan da? Pozik?

Irati eta Eleneren kasuan hauxe izan da lehen aldia, eta oso pozik. Jone aurreko urteetan ere aritu izan da selekzioarekin entrenatzen, baina txapelketan hau izan du lehenengo aldia; oso pozik kasu guztietan.

Noiz hasi zineten waterpoloan?

Irati eta Elene duela bi urte. Jone bederatzi urterekin hasi zen, duela lau urte, eta taldeko lehenengo neska izan zen.

Zein postutan jokatzeko duzue taldean?

Elenek eta Iratik normalean lehen edo bigarren postuetan jokatzeko dute, hau da, igerilekuaren eskuinean (futboleko lateralak balira bezala). Jonek edozein postutan jokatzeko du, baina normalean buia defendatzen edo 2 postuan jokatzeko du (buia ondokoa, eskuinetik).

Eibarko Urbat taldean zabilzate, Paula de

Mariarekin batera (debarra hori ere). Betidanik aritu izan zarete Urbaten?

Bai, hasieratik izan gara Urbaten. Dena den, Jonek Nafarroako Larraina taldeko emakume seniorrekin ere jokatu du denboraldi honetan.

Nolakoak izaten dira entrenamenduak?

Astean bi aldiz entrenatzen dugu, bi orduz, Eibarren. Hala ere, batzuetan asteburuetan beste entrenamendu bat izaten dugu partiduetan gain. Gehienetan gogorak izaten dira entrenamenduak, baina egindako esfortzuak merezi du, asko hobetzen dugulako. Gainera, ondo pasatzen dugu.

Eta partiduetan, noiz jokatzeko dituzue? Non?

Asteburu izaten dugu partidua, normalean Euskal Herrian zehar.

Waterpoloan aukeratu duzue hirurok. Zein da waterpoloaren alderik politena? Eta itsusiena edo gogorrena?

Politena uretan garatzen dela, eta nori ez zaio gustatzen uretan jolastea? Gainera, baloiarekin...! Itsusiena, esfortzu dezente egiten dela eta etxera nekatuta iristen zarela.

Kirol gogorra da fisikoki?

Hori esaten du jende guztiak, baina azkenean ohitzen joaten zara eta ez da hain neketsua bihurtzen.

Zale ugari joaten al da partiduetara? Ikusteko polita al da waterpoloan?

Futbolekin bezainbeste ez, azkenean ez delako jendeak ezagutzen duen kirol bat. Hasiera batean ez duzu ezer ulertzen, baina behin baino gehiagotan ikusiz gero arauak ikasten zoaz eta ikustea oso polita da.

Animatuko zenukete jendea waterpoloan praktikatzera? Zergatik?

Noski, ezohikoa den kirol bat da, baina behin ikusita “engantxatu” egiten zara eta jokatzeko oso ondo pasatzen duzu. Waterpolo zure bizitzako parte bihurtzen da.



Ospatzeko nahikoa arrazoi Amaikak Bat Futbol Taldean



Zorioneko dago Amaikak Bat Futbol Taldea, baita zale guztiak ere. Asteburu bakar batean jokaturako bi partida erabakigarriren ostean, preferenteen taldeak eta neska kadeteen taldeak mailaz igotzea lortu zuten.

Apirilaren 30ean, batetik, Ikasberriri 2-0 irabazi ondoren, Amaikak Bateko Erregional mailako taldea ohorezko mailara igo zen. Ligako beste bi partida geratzen ziren oraindik ere jokatzeko, baina nagusiek denboraldi osoan erakutsi duten nagusitasunari esker, ez dute liga amaiera arte itxaron beharrik izan. 600 bat zale bildu ziren Errota Zaharren jokaturako hitzordua ikusteko.

Neska kadeteen txanda maiatzaren 1ean izan zen. Antzuolari 2-0 irabazi ostean, kadeteen ohorezko mailara igotzea lortu zuen taldeak. Denboraldi osoan partidarik galdu gabe egon dira neskek; merezitako igoera izan dute amaieran.



Futbol zelaian, aldageletan eta herrian bertan ere izan ziren ospakizunak. Musika Banda, kirolariak udaletxeko baloian eta zaleak plazan... Garaipen polita afizio osoarentzat.

Deba Saria eta omenaldia txirrindularitza taldeko beteranoei

Deba Sariaren 28. edizioarekin agurtu ditu Amaikak Bat Txirrindularitza Taldeak aurtengo apirilean antolatutako probak. Hilaren 23an burutu zen lasterketan 79 txirrindulari kadete bildu ziren, eta horietako 43k lortu zuten 52 kilometroko ibilbidea osatzea. Emakumezkoen ez izan partaideen artean.

Txirrindulariek erritmo azkarra mantendu zuten (batez beste, 36,86 kilometro orduko abiadura) eta esprintean erabaki zen lasterketa. Lehen postuan Iñaki Murua (Limousin Cartonajes taldekoa) sailkatu zen, 1:44:38ko denborarekin. Taldeka, berriz, Construcciones Victor Alvaro gailendu zen.

Esker onez jaso dute errekonozimendua

Sari banaketa egin aurretik, ordea, protagonismoa Amaikak Bat Txirrindularitza Taldeko beteranoei izan zuten. Orain arte egin duten lanarekiko esker onez, omenaldia jaso zuten plazan Jose Angel Agirrek, Iñaki Arrizabalaga "Txarturi"-k, Angel Egaña "Txapasta"-k, Enrique Gilek, Jose Maria Idiakenez "Kami"-k (ezin izan zen bertaratu), Juan Maria Galindezek, Juan Carlos Sillerok eta Alex Ugaldek. Azken honek *Berriketan*-i azaldu dionez, "errekonozimendua sorpresa handia izan zen guretzat, inork ez genekielako ezer. Lanean jarraitzeko asmoa daukagu, baina protagonismoa 'errelebo' gaizteek hartu dezatela nahiko genuke.



Ez daukagu erraza, gero eta arazo gehiago daudelako: trafiko, administrazio, bidegurutzeetako laguntzaileak (hauek ere errelebo bat behar dute asko jubilatua baitira, eta bidegurutzeetan jendea jartzera behartzen gaituzte)".

Ugalderen esanetan, baina, "dena delakoarekin, urteetan lagundu diguten guztiei esker mila... esker mila! Ez dago hori ordaintzerik!". "Hiru lasterketa hauek denon laguntzarekin aurrera ateratzen jarraitu ahal izateko", datozen urteotan erreleboa izateko nahia eta itxaropena agertu dute beteranoei.

Bestetik, apirilako probetan laguntzen aritu direnentzako esker ona ere adierazi nahi izan dute beste behin.

Anes Arrindaren koloreak



Hainbat denbora prestaketak egiten, dena kontrolpean, baina denok zerura begira. Erdia urdina, beste erdia grisa. Aurten ere, euria egingo ote digu? Arratsaldeko 3,30ean kioskoa moldatzen hasi ginen, zintak batetik, hesiak bestetik, frutaz betetako kaxak, jaimak. Hara! Musika hotsa, Josu iritsi da. Eta Maite, Iñaki, Miren, Amaia, Leire, Ana, Ainhoa, Kontxi, Josemari, Josune, Olatz, Asier, Xabi, Maider, Ismene, Oihana... Tantaka-tantaka denak ari dira kiosko gunera iristen. Denak umore onez, gogoz. Lanerako prest!

Umeak eta gurasoak ere hasi dira gerturatzen eta galdetzen... Ordua iristear dagoela, arduradunek peto horiak jarri dituzte. Hara! DBHko laguntzaile gazte talde bat ere iritsi da. Hauek ere gogotsu, zapatilak jantzita haurrei ibilbidean laguntzeko prest. Anbulantzia ere gerturatu zaigu, ea bertako boluntarioek arratsalde lasaia duten... Kiosko gunea kolorez betetzen ari zaigu.

Zenbakiak, 6, 87, 146, 189, 234, 302,... mota, tamaina eta kolore askotarikoak... etxeokak. Lasterketa hastera doa. Jose Luisek taldeko argazkia atera eta haurrak arduradunekin irteera gunera hurbiltzen dira. Ismenek azalpentsu txiki bat ematen die hasi aurretik. Urduri daude. Irteteko irrikaz. Txilibitua jo eta aurrera, DBHko gazteek soka batez gidatzen dituzte tarte batez, tokia har dezaten. Soka gora doa eta korri-

kalariak euren oinak eta hankak dantzan jartzen dituzte, ahalik eta azkarren. Bakoitzak ahal duen bezala. Unai alde bate-tik bestera lasterketako argazkiak ateratzen. Ibilbideetako arduradunak bideak garbi egoteko zain. Eta umeak ahal dutena ematen.

Bukatu da lasterketa. Haurrak arnasesetuka. Nekea, poza, amorrua, tristura... Denetarik ikusten da helmugan. Nekeak arintzeko mokadua: koloretsua: gorria, horia, berdea, zuria. Fruta fresko eta gozoa brotxetan, eta beste eskuan txokolatzeko bokadiloa. Mmmmm...

Baina oraindik egon badago. Zozketaren garaia da. Parte hartu duten guztiek dute zerbait eramateko aukera: ipuinak, eskolako materiala, futboleko ekipamenduak, museorako sarrerak, kirol ekintzetarako sarrerak... Sari asko eta ugari denontzako eskuragai. Maider etengabe zenbakiak errezitatzen eta umeak kioskoko eskaileretan gora eta behera. Behean daudenak urduri, euren zenbakia noiz esango zain.

Bukatu da. Koloreak bere horretara itzultzen dira. Kiosko gunea zuhaitzez inguratuta gelditu da berriz. Zeruak gris antzera jarraitzen du oraindik, baina euri tantarik ez. Anes Arrindak 48.ez eman du eman beharrekoa. Hurrengo urtean kiosko gunea kolorez beteko dugu berriro.

Anes Arrinda Haur Kroseko antolatzaileak

Zurrunbilo taldea bigarren postuan sailkatu da

Kantauri Surf Ligan

Debako Zurrunbilo Ur Kirol Elkarteak lan txukuna egin du aurtengo (2015-2016ko) Kantauri Surf Ligan ere. 13 urtetik 43 urterainoko surflariez osaturiko taldeak bigarren postua eskuratu du sailkapen nagusian. Gainera, "talde anitzena-ren saria" ere lortu du taldeak, aurreko bi urteetan bezalaxe. Txapelketa guztietan ahalik eta talde anitzena aurkeztu den taldeari ematen zaio sari hori eta Zurrunbiloko surflariek hirugarren urtez segidan eskuratu dute.

Esan beharra daukagu urtez urte gero eta maila handiagoan lehiatzen ari dela taldea, Bizkaia eta Gipuzkoako beste herrietako surf taldeen aurka.

Zorionak, beraz, Zurrunbiloko taldekideei!



Badator XXX. Antzerki Astea



Maiatzak 20, ostirala:
Itziariko Burugorri etxean,
21:30ean (3 euro).

"IZAN ALA EZ IZAN"
Zurriola Antzerki Eskola,
Donostia.

Amatasunari buruzko esketxak, istorioak, hausnarketak, komeriak eta gertaerak.



Maiatzak 21, larunbata:
Aldats pilotalekuan,
22:30ean.

LUIS MARI GOGOAN.
"ORTZMUGA". Goaz
Antzerki Taldea. Deba.

Luis Mari Agirrezabalak idatzitako antzerki motzetan oinarritutako antzezlan. Horrez gain, bere antzerki ibilbide oparoaren ikus-entzunezko omenaldia izango da.



Maiatzak 22, igandea:
Kale Antzerkia,
13:00etan.

"ONGI ETORRI
FINDEMUNDO!!!". Trapu
Zaharrak taldea. Donostia.

Dieta gogor bat egin ondoren, Amaia Erauskin (Lluvia) zorabiatu egiten da. Mundu amaierarako 15 egun bakarrik falta direla sinestarazi diote eta estralurtarrekin harremanetan jartzen da.



Maiatzak 25, asteazkena
GOAZ Aretoan, 10:30ean eta
11:30ean.

"TXANOGORRITXO"
Aizarnako Eskola
Antzerkia. Aizarna.

Seguru denok ezagutzen duzuela Txanogorritxoren ipuina... Benetan uste duzue Txanogorritxoren amak bakarrik bidaliko zuela basoa zeharkatzera amonaren etxeraino? Hori da orain arte kontatu digutena, baina... horrela ote da?

Maiatzaren 20tik 29ra ospatuko da, GOAZ Antzerki Taldearen eskutik

Berriz ere, maiatza gainera etorri zaigu. Berriz ere, egunak lehenago argitzen du, eta beranduago ilundu. Gure inguruko zelai eta alamedetan islatzen da udaberriak dakarren biziberritzeko indarra. Zelaiak margarita eta belar berdez bete dira eta zuhaitzetan kimu berriak agertzen hasi dira.

Neguko berokiak irribarre handi batez gorde ditugu armairuan, soaz agur eginez begi-kimu bat tarteko. Debarren Eguna ere pasa berri dugu, giro onaren egutegi debarrean sarrera ate handitik eginez. Eta eguzki gosea duten lehen herritarrak toalla eta krema eskuetan hartuta hondartzarako bidean jarri dira.

Gutxi gorabehera, hori da herrian sumatzen den giroa. Baina goazkideon burmuinetan, goian



aipaturikoaz gain, bada beste gai bat kolore biziz egiten duena dir-dir. Aurten ere iritsi zaigu Debako Antzerki Astea aurkezteko parada. Bai, bai, bai! Dagoeneko urtebete pasa da! Dena txukun-txukun antolatuta dugu antzerkizaleei irribarre, barre algara edota negar malkoren bat sorrarazteko.

Nork esango zukeen 30. Antzerki Astea antolatuzera iritsiko ginenik! Gainera, aurten-go hau antzerkizaleontzat berezia izango da. Iaz Luis Mari goazkidea joan zitzaigun; hori gogoan, Goaz taldea omenaldi xume bat egitekotan da, Goazen eta orokorrean antzerkian egin duen lana eskertzeko.

Goazkideok espero dugu gustuko izatea antolatu dugun 30. Antzerki Astea!



Maiatzak 27, ostirala:
Aldats pilotalekuan,
22:30ean (5 euro).

"ZAPOI HIL ARTE EDAN".
Karrika Antzerki Taldea.
Durango.

Kalerako apropos sortutako obra da "Zapoi". Hamabi atalez osatzen da eta uneoro jendaurrean izango dira antzezle guztiak. Erraietako amorru eta minari heltzeko emozioetara jo du Karrikak antzezan honetan.



Maiatzak 28, larunbata:
Aldats pilotalekuan,
22:30ean (6 euro).

"HEROIAK". Txalo Antzerki Taldea. Donostia.

Soldaduentzako zahar egoitza batean daude gerran aritutako hiru heterano. René errena dago. Gustavek agorafobia du eta Fernandek zorabioak izaten ditu sarri... Gerraren ajeak. Zahar egoitzatik ihes egitea erabaki dute. Nora, ordea?



Maiatzak 29, igandea:
Aldats pilotalekuan,
12:30ean (3 euro).

"TOMASEN ABENTURAK: FESTARA". Zurriolako Antzerki Taldea. Donostia.

Abentura honetan herriko jaietarako egitarau aproposa antolatu dute. Pregoia, entzierroa, buruhandiak, harri-jasotzaileak...

XXX. Antzerki Astea

Hogeita hamargarren
Antzerki Astea
Antolatu degu ta
Zatoz ikustera
Gustoko badezue
Irri egitea
Luzatzen dizuegu
Denoi gonbitea

Luis Mari Agirrezabala
Omendua aurten
Zurriola Eskola
Taulan Itziarren
Pailazoak ditugu
Umeen gozamen
Heroiak ere Deban
Farre eragiten

Mutrikuk hartuko du Plazatik Gaztetzera txapelketaren finala

XV. Plazatik Gaztetzera bertsolari gazteen txapelketa amaitzear dago. Maiatzaren 21ean (larunbata) izango da finala, Mutrikun egingo den Plazatik Gaztetzera Egunean.

Apirilaren 15ean hasi zen txapelketa, Eibarren. Eta lau kanporaketa saio egin ostean, finalerdiak jokatu ziren. Finalaurrekoetako bat Debako Gaztetzera izan zen, apirilaren 30ean, eta 20-30 bat lagun bildu ziren. Afalostean, zortzi bertsolari izan ziren protagonista nagusiak, eta aditu-taldearen eta publikoaren botoak zenbatu ondoren, finalerako bi bikote sailkatu ziren: Maider Arregi eta Gemma Urteaga batetik, eta Manex Astigarraga eta Maddi Sarasua bestetik. Markina-Xemeinen maiatzaren 7an sailkatutako beste bi bikoteekin aritu beharko dira finalean.

Aurtengo Euskal Jaia iragartzeko kartel lehiaketa martxan da

Urtero legez, lehiaketa abiatu du Zuhatza Euskara Elkarteak, irailean ospatuko den Euskal Jaia iragarriko duen karteletako irudia zein izango den erabakitzeko.

Aro berriko XIX. Euskal Jaia izango da aurtengoa eta lehiaketara aurkezten diren karteletan derrigorrez testu hau eraman beharko dute: **"Euskal Jaia 2016 Deba"** (euskara hutsean). Partaideek lan bakarra aurkeztu dezakete lehiaketara. Kartelen neurria gutxi gorabehera 50x65 zentimetrokoa izango da, eta formatuak nahitaez bertikala izan beharko du (teknika librea).

Deba eta Itziarko herritarrentzat antolatzen da lehiaketa hau eta kartel irabazlea herritarrek hautatuko dute, botoen bidez, erakusketaren bidez, hiru sari banatuko dira: irabazleak 150 euro jasoko ditu, bigarrenak 100 euro eta hirugarrenak, berriz, 50. Euskal Jaia ira-




gartzeko erabiliko da kartel saritua eta Zuhatzaren esku geratuko da.

Lanak aurkezteko epea ekainaren 28an amaituko da. Zuhatza elkartearen bulegoan aurkeztu daitezke, ekainaren 20, 21, 27 eta 28an (bi astelehen eta asteartetan), 18:30etik 20:00etara bitartean. Oinarrien berri izateko edo informazio gehiagorako, deitu 943 19 13 83 telefono zenbakira, idatzi koordinatzailea@zuhatza.com-era edo pasa zuzenean elkartetik (Ifar kalea 12, behea). Animatu eta parte hartu!

Kulunka taldearen erakustaldia Dantzaren Nazioarteko Egunean

Dantzaren Nazioarteko Eguna apirilaren 29an ospatzen dela kontuan hartuta, biharamunean -hilaren 30eko (larunbata) eguerdian, alegia- dantza klasikoaren erakustaldia egin zuten Kulunka Dantza Taldeko kideek.

Iaz egin zuten bezalaxe, ibaia-aren alboko pasealekuan bildu ziren dantzariak eta haiek ikustera hurbildutako zaleak. Irudi ederrak eskaini zituzten hitzorduak.



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Empresa Registrada Nº 2/05/049
NIVEL 2

Herriko berdegune urbanoak ezagutzeko ibilbidea egin zuten ikasleek

Lurraren Nazioarteko Egunean, apirilaren 22an, ekimen ezberdinak egin zituzten Luzaroko ikasleek. LHko 4. mailako ikasleek, adibidez, herriko berdegune urbanoen ezaugarriak ezagutzeko aukera izan zuten.

Bi taldetan banatuta, ibilbidea gidatzen Iker Goikoetxea eta Iñigo Segurola aritu ziren. "Debako Berdegune urbanoko biodibertsitatearen estrategia diseinatzea eta balioan jartzea" lanaren egileak dira, eta lan horretan Debako berdegune bakoitzean biodibertsitatea handitzeko -landaredia zein animaliak- zer nolako ekintzak burutu ahalko lirartekeen proposatu dute. Horien artean daude, esaterako, artadi txiki bat sortzea Errementeri eta Mogel arteko berdegune berrian, harrizko harresi txiki bat eta frutadun zuhaitzak Anes Arrinda pasealekuaren bukaeran, harizti txiki bat Aldatz Goi eta kirol-degiaren artean...

Estrategi horrek Eusko Jaurlaritzako Ingurumen



Saileko Ihobek iaz emandako Berringurumena diru-laguntza jaso zuen. Udaletik jakinarazi dutenez, berdegune urbanoak halako estrategiak ekintza plan batean jaso dituen EAEko lehenbiziko herrietako bat izan da Deba.


Itziarko Auzo Udalak 2016ko aurrekontuak aurkeztu zituen Burugorriin

Itziarko Auzo Udalak 2016ko aurrekontu orokorrak aurkeztu zituen pasa den apirilaren 26an, Burugorri gunean egindako agerraldi batean. Talde Eragileak aipatu bezalaxe, hauek dira Itziarko Auzo Udalen eredu berriaren lehenbiziko aurrekontuak: "Foru Dekretuan jasotako jarraibideak ezarri dira, Debako Udaleko aurrekontu orokorrekiko portzentajea, eta adostutako eskuduntzen baitan". "Antolaketa berria izanik konplexua izan da abian jarri eta aurrekontu sistema gainontzeko instituzioekin koordinatzea, aurkezpen egutegia atzeratuz -erantsi du Talde Eragileak -. Edonola ere, adostasuneko proposamen honek oinarri sendoak ezarri ditu aurrerantzean elkarlanean aritzeko eta datozen hilabeteetako zereginak zehazteko".

802.017 euroko aurrekontua du Auzo Udalak. Kopuru horretatik, 27.427 euro diru-laguntzetara bideratuko ditu (Debemen, Itziarko elkarteentzako diru-laguntzak...) eta gastuetarako 647.360 euro baliatuko ditu (gastu horien artean, daude, adibidez: eskolaren, industrialdearen edo osasun zen-

troaren mantenua, argiteria publikoko energia, Kopraixak, eraikin publikoen garbiketa, mankomunitatea eta abar). Gainontzeko 127.230 euroak inbertsioetarako erabiltzea aurreikusten du. Atal horretan leudeke, adibidez, inbertsio orokorretarako funtsa, bideak (herrigunean eta landa eremuan), bide konponketak auzolanean, Lasturko plazaren proiektua edota eskola eraikinerako bideratutako inbertsioak. Burugorriko agerraldian ez ezik, aurrekontuen nondik norako eta xehetasunak Facebook-en bitartez ere ikusgai jarri ditu Talde Eragileak.

"Parte-hartzea eta gardentasuna dira Auzo Udalaren bitartez eraiki nahi dugun funtzionamenduaren abiapuntu. Aurten, lehenengo saiakera izanik ez da egokitu baldintzarik behar bezalako prozesu zabalaren bitartez jasotzeko herritarren ekarpenak, eta erdibideko konponbidea bilatu dugu, eragile eta auzotar bileretatik jasotako proposamenen eta lehenetik datozkigun egin beharren artean. Edonola ere, aurrerantzean jorratuko dugu parte-hartze ahalmeneko erabakigunea".



2016ko maiatza
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrea Sortua

BERRIKETAN GAZTEA

Aniztasun afektibo sexualari buruzko saioak Mendata institutuan

Apirilaren 18tik 20ra, Mendata institutuko 3.mailako ikasleek aniztasun afektibo sexualari buruzko ikastaroa eduki zuten; Gehitu, Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen taldeko kideen eskutik. Talde bakoitzak astean bi orduko bi saio izan zituen; lau ordu guztira.

Gehitu elkarteko kideak aurreko urteetan ere egonda zeuden Mendata institutuan. Aurten ere aniztasun afektibo sexualari buruzko informazioa eman zuten eta ikasleek gaiari buruz egin zituzten galderak eta izaten dituzten zalantzak argitu zituzten. Horretarako, 3.mailako tal-



deetan, honako ekintza hauek egin zituzten:

- Ikasleak launaka jarri ziren eta talde bakoitzari egoera desberdin bat planteatu zitaion. Hauek egoerei irtenbideak aurkitu behar zizkieten. Egoerak zenbait institututan gertatzen direnak ziren: ikasle- en arteko irainak, bazterketak...

- Zenbait bideo ere ikusi zituzten, transexualen eta homosexualen bizi egoerari

buruz ohartarazteko helburuarekin.

Ikastaroari amaiera emateko, ikasle bakoitzak, bere ikuspuntutik, balorazio bat egin zuen.

Liburuaren Eguna

Apirilaren 23a Liburuaren Eguna da eta Mendata institutuan urtero ospatzen dugu. Baina aurten larunbata izanenez, apirilaren 18tik, astelehena, apirilaren 22ra arte, ostirala, liburuez gozatzeko aukera izan zuten bai ikasleek eta baita irakasleek ere.

Lehendabizi ikasleei gehien gustatzen zitzairen liburuei buruzko galdeketa bat egin zitzairen. Horrela, Liburutegiko Batzordeak Liburuaren Egunerako, informazio hori erabiliz, hainbat ekintza antolatu zituen.



Ikasleak liburutegiko erakusketan

Alde batetik, ikasleek gehien gustatzen zitzaizkien liburuak hautatu zituzten. Aukera-

tutako liburuekin erakusketa bat antolatu zuten, "Gure liburu gustukoenak" lelopean. Erakusketa aste osoan zehar egon zen ikusgai, jolas orduetan. Horrez gain, Gaztelania eta Euskara arloetako orduetan ikasleak liburutegira joan ziren erakusketa ikustera.

Bestalde, galdera sorta bat eman zitzairen ikasleei. Galdera horiek erantzuteko liburuen izenburua nahiz idazleak aurkitu behar izan zituzten erakusketarako aukeratu ziren liburuen artean.

EGILEAK: Elene Arratibel, Iraide Udabe eta Ane Ladera



ELKARRIZKETA

Aloña Salegi: **"Hamar urterekin hasi nintzen bertsotan"**

Oraingo honetan, 2.mailako Aloña Salegi ikasleari egin diogu elkarrizketa. Zubeltzu Bertso Paper lehiaketako lehen saria irabazteaz gain, Gipuzkoako txapelketan bigarren gelditu da. Bertsolaritza hartu dugu hizpide nagusi solasaldi honetan.

Noiz hasi zinen bertsotan? Eta noiz bertsoak idazten?

Laugarren mailan hasi nintzen bertsotan, hamar urterekin, eta bertsoak idazten ere orduan hasi nintzen, 4.mailan nenbilenean.

Zergatik aukeratu zenuen bertsolaritza?

Oso gustuko dudalako.

Zer nahiago duzu, bertsotan aritzea ala idaztea?

Bertsotan aritzea dut gustukoen.

Zenbat txapelketatan hartu duzu parte?

Gipuzkoako bost txapelketetan eta Zubeltzu sarike-tako sei ediziotan hartu dut parte.

Zenbat txapelketa irabazi dituzu?

Bost aldiz irabazi dut saria Zubeltzu lehiaketan.

Zer lortzen duzu txapelketan irabaziz gero?

Normalean dirua lortzen dut.

Espero al zenuen txapelketa hau irabaztea?

Ez, ez nuen espero.

Gustura al zaude irabazitakoarekin?

Bai, oso pozik nago.

Bertso eskolan ibili al zara inoiz?

Bai, duela 4 urte hasi nintzen bertso eskolan.

Zein da zure bertsolaririk gustukoena?

Maialen Lujanbio.

IRAKURKETA, LIBURUAK...

Apirilaren 23an ospatutako Liburuaren Eguna dela eta, irakurketari buruzko galderak egin dizkiegu oraingoan 2.mailako ikasleei.
Hona hemen galdera-erantzunak:

- 1.- Gustuko duzu irakurtzea?
- 2.- Zer nolako liburuak irakurtzen dituzu?
- 3.- Astean zenbat denbora eskaintzen diozu irakurketari?
- 4.- Zein da zure libururik gustukoena?
- 5.- E-bookaren bitartez edo paperean irakurtzen duzu?
- 6.- Institutuan derrigorrez irakurri behar diren liburuak irakurtzen dituzu?



Ibai Ponce

- 1.- Ez.
- 2.- Eskolan agintzen dizkidatenak.
- 3.- Ezer ere ez.
- 4.- "El príncipe de la niebla".
- 5.- Paperean.
- 6.- Bai, irakurtzen ditut.



Jon Txurruka

- 1.- Bai.
- 2.- Abenturazko liburuak irakurtzen ditut normalean.
- 3.- Hiru ordu inguru.
- 4.- Ez daukat.
- 5.- E-bookaren bitartez nahiz paperean.
- 6.- Batzuetan bai, beste batzuetan ez.



Maria Perez

- 1.- Ez, ez dut gustuko.
- 2.- Institutuan agintzen dizkidatenak.
- 3.- Ezer ez.
- 4.- "Ezekiel".
- 5.- Bietan, bai e-bookean eta baita paperean ere.
- 6.- Bai, beti.



Elene Gomez

- 1.- Bai.
- 2.- Abenturazkoak irakurtzen ditut.
- 3.- Astean ordubete irakurtzen dut.
- 4.- "Crepúsculo".
- 5.- Paperean irakurtzen dut.
- 6.- Bai.



Endika Ruiz

- 1.- Ez, ezertxo ere ez.
- 2.- Ez ditut liburuak irakurtzen.
- 3.- Eskolan irakurtzen dudana.
- 4.- "El príncipe de la niebla".
- 5.- Paperean.
- 6.- Bai, baina azkar batean.



Elaia Oiartzabal

- 1.- Ez.
- 2.- Edonolakoak.
- 3.- Ez dut irakurtzen.
- 4.- "Kafka eta panpin bidaiaria".
- 5.- Paperean.
- 6.- Bai.



Xabi Larrañaga

- 1.- Ez.
- 2.- Ez dut irakurtzen.
- 3.- Ezer ere ez.
- 4.- "Nur".
- 5.- Paperean.
- 6.- Bai.




Aloña Salegi

- 1.- Ez.
- 2.- Denetik.
- 3.- Ez dut irakurtzen.
- 4.- "Bat Pat".
- 5.- Paperean.
- 6.- Bai.

EGILEAK: Haritz Alberdi, Jon Muñoz eta Lara Egaña

DENBORA-PASAK

Aurkitu bederatzi ezberdintasunak:



HIEROGLIFIKOAK

1) Zer inporta zaidan? Niri...



2) Nolakoa da Anaren senargaia?



3) Non busti da?



TXISTEAK

* Baserritar bat Madrilera joan eta:
 -Mesedez, "Puerta del Sol"-era joateko?
 -58. autobusa hartu behar duzu. Handik lau ordura berriro ikusi zuen baserritarra leku berean eta galdetu zion:
 -Baina, hemen zaude oraindik?
 -Bai, 52 autobus pasa dira oraingoaz.

* Bi mexikar daude eta batak esaten dio besteari:
 -Nola duzu izena?
 -Pepe Gaileta.
 Besteak pistola atera... eta... BUMMMM!
 -Ba orain Pepe Roskila zara!

HIZKI-ZOPA

Ahizpa
 Ailorbe
 Aldaetxe
 Anbizio
 Ankarar
 Berbadun
 Gogorxko
 Kexu
 Merkurio
 Oihanpe
 Onddo
 Ozeaniar
 Parasito
 Samats

X	A	L	A	O	D	O	L	I	U
U	H	G	N	I	R	N	U	Y	M
U	I	E	B	H	O	D	Z	B	O
B	Z	G	I	A	Z	D	U	U	R
E	P	O	Z	N	E	O	T	A	E
R	A	G	I	P	A	S	U	L	M
B	R	O	O	E	N	U	N	D	E
A	A	R	A	A	I	P	D	A	R
D	S	X	N	I	A	R	U	E	K
U	I	K	K	L	R	E	S	T	U
N	T	O	A	O	K	F	A	X	R
C	O	O	R	R	E	E	M	E	I
K	D	R	A	B	X	T	A	H	O
X	L	Z	R	E	U	G	T	W	B
N	V	F	I	B	G	Z	S	O	M

ERANTZUNAK:

a) b)
 Hieroglifikoak:
 1.-Bost axola
 2.-Bizarduna
 3.- Erekan

EGILEAK: Ane Ladera, Elene Arratibel eta Iraide Udabe

laguntzaileak:



babesleak:



Debako Udala



prentsa tailerra 2015-2016

Ane Amutxastegi
 Elene Arratibel
 Ane Ladera
 Lara Egaña
 Haritz Alberdi
 Julen Ayastuy

Jon Muñoz
 Naia Zabala
 Ane Larrañaga
 Iraide Udabe
 Idrissa Sene
 Jon Osa

Koordinatzailea: Tomas Ramos

MAIATZAK 20-29

-**Antzerki Astea** (ikus 10-11 orrialdeak).
-Haitz Haundi elkartearen **erakusketa**, Agirre jauregiko erakusketa gelan.

MAIATZAK 21, LARUNBATA

-10:00-12:00. **Nordic Walking**, hastapen ikastaroa. Izena emateko: andoni@ekinkiro-la.com-en edo 645 71 40 62 telefonoan.
-**Paella lehiaketa**.

MAIATZAK 22, IGANDEA

-8:30. **Ibilaldi Naturzalea**. Elorrixako haitzetatik Sakonetara, Aitor Leiza eta Asier Aldalur adituen azalpenekin (Itziarko plazatik abiatuta). Izen-ematea, Burugorri.
-11:30. **Euskadiko Sokatira Txapelketa**, Debako Kalbeton zumardian.
-11:30. **Txorientzako habia-kutzak zintzilikatzeko irteera** Ozion.

MAIATZAK 23, ASTELEHENA

-19:00. **"Euskal balezaleen triskantza"** dokumentalaren aurkezpena eta mahai-ingurua (euskaraz), Agirre jauregian.**

MAIATZAK 27, OSTIRALA

-17:30. **Zetazeoen inguruko tailerra** haurrentzat. "Balearen bila" marrazki lehiaketako sari banaketa. Agirre jauregian.**
-19:00. **Klarinete jaialdia**, Agirre jauregian.
-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.
-21:30. **"Bide berriak, elikadura burujabetza Euskal Herrian"**, dokumentala eta solasa Itziarko Burugorri gunean.

MAIATZAK 28, LARUNBATA

-8:30. **Mendi irteera** (bi egunez), Gorlizera. Luzarok eta Burdin Kurutzek antolatuta.
-10:00. **Ibilaldi gidatua** oinez Mendatako talaiaren indusketara. Irteera puntua: Itxaspe kanpina. Izen-ematea Debako Turismo Bulegoan (943 19 24 52). **

MAIATZAK 29, IGANDEA

-10:30. **Geoparkeko interpretazio gunearen inaugurazioa** eta bisita geo-kulturala Lasturko harriari buruz (Hector Fano, geologo). Lasturko Aterpetxean. **
-**Otabak**. 13:00: Meza Aittolako gurutzean, bailaran hildakoen alde. Bertan izango dira Izer eta Alabier trikitilariak, eta Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak. Ondoren, bazkaria Aittola Zahar-en, erromeria...

EKAINAK 3, OSTIRALA

-21:00. **"Gaurko krisiez, biharko munduaz"** hitzaldia, Joseba Azkarraga Etxegibel soziologo eta irakaslearen eskutik. Itziarko Burugorri gunean.

EKAINAK 3-18

-**Arte Eskolako ikasleen erakusketa**, Agirre jauregiko erakusketa gelan.

EKAINAK 6, ASTELEHENA

-19:00. José Romanoren **"Pompilio Madrigal"** liburuaren aurkezpena, Agirre jauregian.

EKAINAK 8, ASTEAZKENA

-19:00. **Bibolin jaialdia**, Agirre jauregian.

EKAINAK 10, OSTIRALA

-22:00. **Kontzertua: Amorante**. Itziarko Burugorri Gunean (sarrera 3 euro).

EKAINAK 11, LARUNBATA

-**18:00. Irri-Banda**. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoekin batera, Debako Musika Bandak, Aitzuri Abesbatzak, Kuluntza Dantza Taldeak eta Musika Eskolako ikasleek emanaldi berezi bat eskainiko dute, Aldats pilotalekuan.

EKAINAK 12, IGANDEA

-**Andutz Eguna**.
-10.00-12.00. **Nordic Walking ikastaro aurreratua**. Izena emateko: andoni@ekinkiro-la.com-en edo 645 71 40 62 telefonoan.

EKAINAK 13-17

-Deba Musikal, **kurtso bukaerako jaialdiak**. Agirre jauregiko Ispiluen gelan.

EKAINAK 18, LARUNBATA

-9:30. **Mural pintaketa**. Itziarko Kalebarrenetik beheko paretan zaharra berpiztu nahi dute mural bat sortuz elkarlanean, Ainaraz Azpiazu AXPI marrazkilariren gidaritzaz.
-22:00. **Kulunka**. Kurtso amaierako jaialdia, Aldats pilotalekuan.

EKAINAK 22, ASTEAZKENA

-20:30. **Ipuin kontaketa**: Patxi Zubizarreta idazlearen "Atxiki sekretua-Sorginaren eskuliburua" lanetik abiatuta kontakizuna egingo du Amaia Zinkunegik, Itziarren.

** *Europako Geoparkeen Astearen baitan antolatutako ekimenak izar berdeekin bereizi ditugu.*



Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12



ZAINTZAKO BOTIKA
Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **maiatzak 27, 28, 29.**
ekainak 6, 7, 8, 9.

Burgoa Zuazo: **maiatzak 23, 24, 25, 26.**
ekainak 10, 11, 12, 20, 21, 22, 23.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: maiatzak 28 / apirilak 4
BURGOA ZUAZO: maiatzak 21
ekainak 11 eta 18

9:30 - 13:30



Argazkilaria Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko errelokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

MARIE CASTRO Iribarren



MASAJISTA

- Masaje terapeutikoak
- Kiroletako masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Manipulazio txinatarra

25 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615

DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206

Tel.faxo: 943 191 774

Hondartza, 10 - behea

20820 DEBA (Gipuzkoa)

mikeliturgintza@euskalnet.net

www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617

Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com

www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127

20820 DEBA (GIPIZKOA) Fax: 943 192 482

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA

Lersundi 1, behea 20820 - DEBA

Tel.: 943192263

www.atarideba.com

Lizaso Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576

20820 DEBA

Jarri zure publizitatea Berriketan aldizkarian!

Zuhatzia

943 191 383
berriketan@zuhatzia.com



JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea

Tel.: 943 192 819

20820 Deba



English Academy

NORTH STREET ENGLISH

Tel. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba
rhorton4@yahoo.es

Seven Clovers

Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



Ostolaza, 5
DEBA

Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Ander Salegi

Zorionak!

